



IV. ERANSKINA. MEMORIA

METROPOLI- ETA IBAI-PARKEAK

BILBO METROPOLITARREKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA

2025





Antolamendurako helburuak, funtzioak eta irizpideak

Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak antolatzeko idazten diren Plan Bereziek, haietako bakoitzean berariaz definitutakoez gain, honako helburu eta funtzio egituratzaile hauek ere antolatu beharko dituzte, lehentasunez:

Helburu orokorrak:

- o Eremu osorako zonifikazio bat definitzea, eremu bakoitzaren ezaugarrien arabera, eta eremu bakoitzerako babes-maila eta erabilera egokiak, onargarriak eta debekatuak ezartzea. LPP honetan babes berezikotzat eta ingurumen-hobetzekuntzakotzat jotzen diren eremuen antolamendua errespetatu egin beharko da plan berezian ezarritako jarduerak eta jarraibideak proposatzerakoan.
- o Bertako landaredi potentziala berreskuratu dadin sustatzea, baliabideen ustiapenarekin bateragarri eginez, eta bertako zuhaitzak babestea.
- o Parkeen eta inguruan dauden naturaguneen arteko lotura ekologikoa hobetzea.
- o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna bultzatzea azpiegitura bigunen bidez, oinezkoentzako sarbidea eta hiriko azpiegitura berdearen jarraitutasuna bultzatuz.
- o Parkeetarako sarbideak antolatzea eta arautzea, garraio publikoko geltokien eta geratokien hargune-erradioaren barruan daudenak indartuz. Era berean, aparkalekuak antolatzea eta arautzea, horien erabilerak hiri-eremu finkatuekiko interakziorik ez duenean.
- o Gaur egungo paisaia babestea eta herritarrek paisaia horretaz gozatzea ahalbidetzen duten jarduerak mantentzea eta sustatzea.
- o Ingurumena hobetzeko ekintzak abian jartzea: ingurumen-hobekuntza, eraikinak zaharberritzea, ibilbideak hobetzea eta abar.
- o Aisialdiko jarduerak ordenatzea: baimendutako jarduerak eta babes- eta kontrol-neurriak definitzea, bai eta beharrezko ekipamenduak antolatzea ere.
- o Eragin negatiboa izan dezaketen eta eremuaren ezaugarri naturaletan galerak eragin ditzaketen alderdiak birbideratzea, eta ingurumen-inpaktu negatiboak ezabatzeko plan espezifiko bat abian jartzea.

Funtzio orokorrak:

- o Natura: bertako zuhaitzak eta landaredia eta batasunaren intereseko habitatak babestea.
- o Ikerketa zientifikoa.
- o Paisaia: dauden paisaia-balioak babestea eta eremuko garraio-azpiegituren paisaia-integrazioa hobetzea.
- o Aisia: baimendutako eta sustatutako aisialdiko eta dibertimenduzko jarduerak eta dauden ekipamenduak erregulatzea. Aisialdiko jarduera formalak zein informalak egiteko espazio irekiak ematea.
- o Hezkuntza: ingurumen-hezkuntzako eta sentsibilizazioko jarduerak egitea, eremuko natura-balioak eta arazoak ezagutzeko, bai eta ingurunea hobetzeko jarduerak egiteko aukera ere.

Behin betiko mugatzeko irizpideak:

Parke bakoitzerako proposatutako mugaketa orientagarria da, eta udalaz gaindiko azpiegitura berdearen eta lehendik dagoen eta potentziala den hiri-azpiegitura berdearen arteko lotura indartzea du helburu.

Plan Berezi bakoitzak ezarriko du behin betiko mugaketa, eremuaren azterketa xehatuan oinarrituta eta jarraian zehazten diren irizpideei jarraituz:

- o Proposatutako jarduerak garatzeko beharrezkoak diren arloak txertatzea.



- o Basoak eta landaretza autoktonoko eremuak sartzeari, herritarren babesa eta gozamina sustatzeko.
- o Korridore ekologikoekin eta hiriko azpiegitura berdearekin lotura egokienak bilatzea, bereziki ibai-ibilguri lotutako eremuak sartuz. Hala badagokio, korridore ekologikoen mugaketa handitzea.
- o Interesgarriak izan daitezkeen ondare-elementuak txertatzea, haien balioa nabarmentzeko eta elementu horiek ezagutu eta gozatu ahal izateko.
- o Hiri-inguruneetan, mugaketaren barruan erabilera publikoko espazioak edo parkea diseinatzeko ezinbestekoak diren eta publiko bihurtu behar diren espazio pribatuak soilik sartzeari.

Jarraian, metropoli-parke eta ibai-parke bakoitzerako honako hau zehazten da:

- o Eremuaren kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena
- o Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaile espezifikoak
- o Antolamenduko helburu espezifikoak



1. Uribe Kostako itsasertzeko metropoli-parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Getxoko Aixerrota inguruaren eta Plentziako itsasadarraren arteko kostaldean dago. Muga egiten du ipar-mendebaldean Kantauri itsasoarekin, hego-mendebaldean Getxo, Sopela eta Barrika udalerrien hiri-hazkundearen perimetroarekin, ipar-mendebaldean Getxoko Aixerrota eremuarekin eta ipar-ekialdean Plentziako itsasadarraren bokalearen ezkerrearekin. Metropoli-parkea Getxo, Sopela eta Barrika udalerrien barruan dago.

Itsasertz hori erakargarritasun handiko eta natura- eta paisaia-balio handiko gunea da, eta haren aukerak indartu, babestu eta bideratzea komeni da. Bere lurralde-kokapenagatik, itsasertza Getxotik Butroeko korridore ekologikora lotzen du, eta hori, aldi berean, Mungialdeko Eremu Funtzionalarekin lotzen da.

Parkeak Eremu Natural garrantzitsuen katalogo irekiaren Galea lurmuturra – Barrikako Intereseko Naturagunea hartzen du, eta, ipar-ekialdean, Sopelatik Plentziaraino, bat egiten du Uribe-Kosta-Butroeko biotopoaren mugaketarekin (Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako Sailburuaren 2012ko irailaren 3ko Aginduan ezarritako mugaketaren arabera; Agindu horren bidez hasi zen Uribe-Kosta-Butroeko eremuko Baliabide Naturalen Antolamendurako Plana egiteko prozedura). Eremu horretan, Agindan ezarritako zuhertasuna errespetatu beharko da, bai eta biotopoarentzat onartutako jarraibideak ere.

Gaur egun, mugatutako eremuan, oso ezaugarri desberdinak dituzten bi gunek bereizten dira: hegoaldeko gunek jendetsuena da, eta oinezkoentzako hainbat tarte ditu, modu heterogeneoan egokituta; ingurumena babesteko eta hobetzeko eremuak ditu; eta iparraldeko eremuak, berriz, landazabaleko eremuak eta hain egokituta ez dauden eta ezaugarri naturalagoak dituzten bidezidorrak ditu.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Eremu horrek garrantzi handiko ezaugarri espezifikoak ditu herritarren gozamenari dagokionez, batez ere eskuinaldeko biztanleen artean. Horregatik, bateragarri egin beharko dira aisialdiko jarduerak eta ingurune fisikoa babesteko neurriak, ingurumenaren aldetik sentikorra den eremuaren balioa handitzeko, presio antropikotik babesteko eta dauden natura- eta paisaia-balioak kontserbatzeko.

Proposatzen diren ingurune fisikoaren gaineko esku-hartzeek eremua balioetsi beharko dute, hainbat ikuspuntutatik: ingurumena, aisia, paisaia, basozaintza eta nekazaritza eta abar. Eta garatzen diren jarduketek kontuan hartu beharko dute ustiatu daitezkeen baliabideen antolamendua, haien balio naturalak arriskuan jarri gabe. Halaber, lehentasuna izango du itsasertz osoaren lotura ekologikoa bermatzeak, bai barnean bai inguruko elementuekin.

Metropoli-parkearen bidez, itsasertz osoko berdeguneen, itsaslabarren eta itsasertzeko parkeen arteko jarraitutasuna lortu nahi da, Butroeko K.E.08 korridore ekologikoaren eta eremu horretako gunen naturalen arteko lotura ekologikoa bermatuz. Era berean, jarraitutasun ekologiko hori sustatu nahi da Getxoko hiriguneko tokiko azpiegitura berdearekin, eta oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidea ahalik eta jarraituena eta luzeena izatea lortu nahi da, itsasoari begira dagoen kostaldeko eremua alde batera utzi gabe.

Irizpide egituratzailea izango da kostaldeko lerroarekiko lotura bigun eta natural perpendikularrak ezartzea, oinezkoen irisgarritasuna eta kostaldeko bizikleta-lotura ahalbidetzeko, bereziki Getxo eta Sopela aldean.

Parkearen antolamenduan, kontuan hartu beharko dira eremuen ezaugarri bereziak, lursailak ipar-ekialdean naturaltasun handiagoa izan dezan eta hego-mendebaldeko presio antropiko handiena antolatzeko.



Oro har definitutako funtzioez gain, Plan Bereziak honako funtzio espezifiko hauek antolatu beharko ditu:

- o Nekazaritza eta basotzaintza: balio agroekologikoa duten lurzoruak babestea. Nekazaritza-eta baso-baliabideak modu iraunkorrean ustiatzeko ekintza berritzaileak abian jartzeko aukera balioetsi ahal izango da. Nekazaritza eta basozaintzako lan tradizionalak berreskuratzea balioestea.
- o Paisaia: Sopela eta Barrikako zelaietako paisaia-interes bereziko eremua babestea eta inguruko ondare geologikoaren balioa nabarmentzea.
- o Aisia: oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak antolatzea parkean zehar, eta, Getxo eta Sopela artean, zeharkako ibilbideak ere antolatzea.

Antolamendurako helburuak:

Parke guztietarako oro har definitutakoez gain, idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Getxo, Sopela eta Barrika udalerrien inguruan dauden eremu naturalen arteko lotura ekologikoa hobetzea, eta metropoli-parkearen eta Butroeko K.E.08 korridore ekologikoaren arteko lotura ekologikoa bermatzea.
2. Gorniz, Sopela, Barrika, Plentzia eta Lemoiz udalerrietan itsas mailaren igoerak hiri-ingurunean eta kostaldean duen eraginari dagokionez klima-aldaketak eragindako ondorioetan sakontzeko zehaztutako azterlanak koordinatzea eta osatzea. Helburu hori garatzeko, plan bereziak defini ditzakeen ekintzak Plentziako eta Lemoizko udalerrietara ere zabaltu ahal izango dira.
3. Mugikortasuna bilatzea azpiegitura bigunen bidez, oinezkoentzako sarbidea eta hiri-azpiegitura berdearekiko jarraitutasuna bultzatuz, zeharkako konexioak sortuz.
4. Sarbideak antolatzea eta arautzea, metro-geltokietako hargune-erradioaren barruan daudenak indartuz eta bide-azpiegituren erabilera sustatuz. Era berean, aparkalekuak antolatzea eta arautzea parkearen iparraldean, horien erabilerak hiri-eremu finkatuekiko interakziorik ez duen lekuetan.
5. Paisaia babesteko jarduerak sustatzea, bereziki Sopelako eta Barrikako zelaietako paisaia-interes bereziko eremuan.
6. Seinaleztatutako bidezidorren sare bat sortzea, bizikleta-bideak mugatzea eta dauden bideen irudia eta tratamendua bateratzea.



2. Akarlandako Metropoli-parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Metropoli-parkea Unbe eremuan dago, Erandio udalerriaren ipar-ekialdean, BI – 2731 y BI - 2704 errepideek bat egiten duten lekuan. Muga egiten du iparraldean eta ekialdean BI – 2731 y BI – 2704 errepideekin, hurrenez hurren, bai eta Bolue - Unbe K.0.02 korridore ekologikoarekin ere, eta hegoaldean eta mendebaldean nekazaritza-eremuekin. Metropoli-parkea Erandio udalerriaren barruan dago.

Gune horrek kokagune natural baten berezko balioen zati bat gordetzen du, eta, aldi berean, jolas-, aisi- eta aisialdi-jarduerak hartzen ditu. Halaber, lurralde-kokapen estrategikoa du, eskuinaldetik (Erandio, Leioa), Txorieritik (Loiu eta Sondika) eta itsasertzetik (Getxo eta Sopela) gertu baitago.

Gaur egun, mugatutako eremuan jolas-gune bat dago, eta bertan, zerbitzu-eraikin bat, kirol-instalazioak (futbol- eta saskibaloizelaia, rokodromoa, eta abar), aire zabaleko mahaia, haur-parkea, basoak zaintzeko dorrea eta sartzeko aparkalekua daude.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Metropoli-parkea garatuz, herritarrentzako aisialdi-eremu baten antolamendua finkatu nahi da, eremu horretan dauden natura- eta paisaia-balioak babestearekin bateragarri eginez.

Proposatzen diren ingurune fisikoaren gaineko esku-hartzeek eremua balioetsi beharko dute, hainbat ikuspuntutatik: ingurumena, aisia, paisaia, basozaintza eta nekazaritza eta abar. Eta garatzen diren jarduketek kontuan hartu beharko dute ustiatu daitezkeen baliabideen antolamendua, haien balio naturalak arriskuan jarri gabe. Era berean, lehentasunezkoa izango da Bolue - Unbeko K.E.02 korridore ekologikoarekin lotura ekologikoa bermatzea, ondoko azpiegitura grisek eragindako etenak konpontzeko irtenbideak proposatuz.

Oro har definitutako funtzioez gain, Plan Bereziak honako funtzio espezifiko hauek antolatu beharko ditu

- ☛ Natura: jarraitutasun ekologikoa zuzentzea Bolue-Unbeko K.E.02 korridore ekologikoarekin, eta egungo azpiegitura berdearen eta grisaren arteko gatazka-eremuak zuzentzeko neurriak ezartzea (G.E.04 eta G.E.05).
- o Nekazaritza eta basozaintza: Nekazaritza eta basozaintzako baliabideak modu iraunkorrean ustiatzeko ekintzak abian jartzeko aukera.
- ☛ Paisaia: Txorierriko nekazaritza-eremuetan paisaiaren aldetik interes berezia duen eremua kontuan hartzea erraztuko duten jarduketak puntualak ezartzea.

Antolamendurako helburuak:

Parke guztietarako oro har definitutakoez gain, idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Metropoli-parkearen eta Bolue – Unbeko K.E.02 korridore ekologikoaren arteko lotura ekologikoa bermatzea, sare kapilarreko BI-2704 y la BI – 2731 errepideen bitartez, zehazki. Horretarako, konektibitate ekologikoa konpondu beharko da definitutako bi gatazka-eremuen bidez (G.E.04 eta G.E.05), eta, besteak beste, faunarentzako pasabidea bide-azpiegituraren beraren bidez integratzeko neurriak garatu beharko dira.
2. Sarbideen, bide-azpiegituren eta aparkalekuen antolamendua eta erregulazioa burutzea.
3. Ingurunearekiko bizikleta-lotura hobetzea, bai Erandio-Goikoa eta Zabaloetxe herriguneetatik (Loiu), bai EHUren Leioako campusetik.
4. Txorierriko nekazaritza-eremuetako paisaia-interes bereziko eremuarekin lotutako paisaiaren gozamina eta babesa sustatzen duten jarduketak ezartzea.
5. Seinaleztatutako bidezidorren sarea sortzea eta bizikleta-bidezidorrak mugatzea.



3. Artxandako Metropoli-Parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Artxandako metropoli-parkea, Cabras menditik eta Banderas menditik Santo Domingo gainera doan katearen tontorrean dago. Proposatutako mugaketa orientagarriak muga egiten du iparraldean eta ekialdean Artxanda - Ganguren K.E.04 gailur-lerroarekin eta hegoaldean eta mendebaldean Bilboko hiri-hazkundearen perimetroarekin. Metropoli-parkea Bilbo eta Sondika udalerrien barruan dago.

Kokalekua interes handiko gunea da metropoli-eremuaren barruan, paisaia-interesa baitu, Bilboko hirigunearen, Txorierriren eta itsasertzaren begiratoki pribilegiatua delako. Halaber, nabarmentzekoak dira haren balio naturalak eta jolas-ingurunea, aisialdirako eremu gisa erabili izan baita tradizionalki, eta ekipamendu, hornidura eta zerbitzu ugari dituen erdigunea baitu. Artxandako funikularren bidez, Bilbotik erraz hel daitezke oinezkoak eta txirrindulariak. Ibilbide Handiko (GR 228: Bilboko Eraztun Berdea) natura-ibilbide bat ere badago, parkerako proposatutako mugaketa luzetara zeharkatzen duena.

Gaur egun, jarduketa garrantzitsuak egiten ari dira: zuhaitz-eremua, lorategiak eta begiratokia berritzea funikularra iristen den inguruan, eta BI-3741 errepidea eraldatzea, ibilgailuen zirkulazioa eta oinezkoen eta bizikleten zirkulazioa segurtasun-baldintzetan bateragarriak izan daitezen.

Metropoli-parke horren eremurako, Bizkaiko Foru Aldundiak Plan Berezi bat idazteko agindu zuen, eremu hori modu integralean antolatzeko. Dokumentua 1998an entregatu zen, eta tramitazioak ez du aurrera egin.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Kokalekua eta gaur egun erdialdean ezarrita dauden erabilerak direla eta, eremu horrek garrantzi handia du herritarren, Bilbotarren bereziki, aisialdirako. Haren garapenaren bidez, berdeguneak, ekipamenduak eta aisialdirako hornidurak (begiratokiak, pasealekuak, merenderoak, jatetxeak, kirol-ekipamenduak eta abar) eta aisialdirako ez diren ekipamenduak eta hornidurak (osasunerako, hezkuntzarako eta abar) modu ordenatuan integratuko dituen metropoli-parkea lortu nahi da.

Erdialdean egiten diren egokitzen-jarduketak alde batera utzi gabe, parkeko hainbat puntu estrategikotan Nerbioi-Ibaizabal eta Txorierrri haranak behatzeko eta atseden hartzeko guneak jarri beharko dira, ikuspegi panoramikoez gozatu ahal izateko. Halaber, paisaiatz eta naturaz gozatzeko aukera emango duen ibilbide-sare bat diseinatuko da.

Idatziko den plan bereziaren helburua ingurumen-, paisaia- eta ekologia-alderdietan sentikorra den eremu baten balioa handitzea izango da, erabilera eta jardueren erregulazio egoki baten bidez aisialdiko jarduerekin bateragarri eginez.

Egoera horren aurrean, oro har definitutako funtzioez gain, Plan Bereziak honako funtzio espezifiko hauek antolatu beharko ditu:

- o Paisaia: begiratokiak leku estrategikoetan kokatzea eta Artxandako hegaletan paisaiaren aldetik interes berezia duen eremua babestea.
- o Aisia: baimendutako eta sustatutako aisialdiko jarduerak antolatzea, bai eta dauden beste jarduera mota batzuk ere. Aisialdiko eta paisaiako ibilbideak antolatzea.
- o Nekazaritza eta Basozaintza: proposamen berritzaileak praktikan jartzeko aukera, bai ustiapen-moduetan, bai espezie motetan.



Antolamendurako helburuak:

Parke guztietarako oro har definitutakoez gain, idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Bilbo eta Sondika udalerrien inguruan dauden eremu naturalen arteko lotura ekologikoa hobetzea, eta metropoli-parkearen eta Artxanda - Ganguren K.E.04 gailur-lerroaren korridore ekologikoaren arteko lotura ekologikoa bermatzea. Zehazki, G.E.11 gatazka-eremuan konektibitate ekologikoa konpontzeko aukerari ekitea, korridore ekologikoarekin berarekin partekatuta.
2. Txorierriko bizikleta-lotura hobetzea, ahal den neurrian, Bilbo-Lezama trenbide zaharraren trazatuaren arrastoa aprobetxatuz.
3. Artxandako hegaletako paisaia-interes bereziko eremua antolatzea eta babestea.
5. Aisialdiko jarduerak ordenatzea: seinaleztatutako bidezidorren sarea sortzea eta bizikleta-bidezidorrak mugatzea.
4. Dauden inpaktuen ezabaketari ekitea: eremuaren ipar-ekialdeko hegalean dagoen zaborteziaren ingurumen-hobekuntza, eraikin abandonatuak, hondakinak, instalazio elektriko zaharkituak, argi-hodiak eta abar.



4. Serantes-Arena Metropoli-Parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Metropoli-parkea Serantes eta Montaña mendien tontorretan eta Abra eta kostaldeko isurialdeetan dago. Proposatutako mugaketa orientagarriak muga egiten iparraldean Bilboko portuarekin, hegoaldean Ortuella, Muskiz eta Abanto-Zierbena hiri-hazkundeko perimetroarekin eta A-8 errepidearekin, mendebaldean Arena hondartzarekin eta itsasertzeko zerrendarekin eta ekialdean Santurtzi udalerriko hiri-hazkundeko perimetroarekin. Parkearen barruan, haren parte ez den arren, Zierbenako San Roman auzoa dago. Metropoli-parkea Santurtzi, Zierbena eta Muskiz udalerrien barruan dago. Zierbenako natura-gune interesgarriak eta Serantes mendia barne hartzen dituen kokagune naturala da. Era berean, La Arena hondartzarekin eta Pobeñako padurekin lotzen da; izan ere, ez dira parkearen mugaketan sartu, babes espezifikoak dutelako. Era berean, ezker aldeko hiriguneekin eta Barbadungo K.E.07 korridore ekologikoarekin konektatzen da.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Metropoli-parke hori garatuz, natura-eremu hori antolatu nahi da, eta, horretarako, bateragarri egin nahi dira eremuko natura- eta paisaia-balioen babesa eta inguruko ohiko mendi-ibiliak eta aisialdia.

Serantes mendia elementu ikonikoa da, bere silueta bereziagatik eta Eremu Funtzionalaren barruan oso ageriko elementu orografikoa delako. Beraz, paisaia-mugarri bat da. Era berean, Serantes eta Montaña mendien itsasertzeko inguruak elementu berezia dira Zierbenako eta Muskizko kostaldean.

Proposatzen diren ingurune fisikoaren gaineko esku-hartzeek eremua balioetsi beharko dute, hainbat ikuspuntutatik: ingurumena, aisialdia, paisaia, nekazaritza eta basozaintza eta abar. Garatzen diren jarduketek kontuan hartu beharko dute ustiatu daitezkeen baliabideen antolamendua, haien balio naturalak arriskuan jarri gabe, eta, era berean, lehentasuna izango dute eremuan dauden zuhaitz autoktonoen masa handiak babestea, zuhaitz eta landaredi autoktono gehiago landatzea eta parkean dauden intereseko naturguneen eta hezeguneen eta kostaldeko zerrendaren arteko lotura ekologikoa bermatzea. Gainera, Santurtziko hiri-azpiegitura berdearekin lotzen saiatuko da.

Egoera horren aurrean, oro har definitutako funtzioez gain, Plan Bereziak honako funtzio espezifiko hauek antolatu beharko ditu:

- o Nekazaritza eta basozaintza: balio agroekologikoa duten lurzoruak babestea, eta, bereziki, nekazaritzako landazabal bereizgarriaren konfigurazioa.
- o Paisaia: Seranteseko eta Montañoko mendi-hegaletako paisaia-interes bereziko eremua babestea.
- o Aisia: mendi-ibiliak egitea, bai eta jarduera honekin erlazioa duten atsedenerako eta paisaia ikusteko jarduerak egin ahal izateko eremuak ere.

Antolamendurako helburuak:

Oro har zehaztutako helburuez gain, idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeke:

1. Metropoli-parkeak Arenarekin eta Barbadungo K.E.07 korridore ekologikoarekin duen lotura ekologikoa bermatzea.
2. Santurtzitik Zierbenarako bizikleta-loturarekiko eta Muskiz eta Gotorlekuen eta Kobaron arteko bizikleta-bidearekiko lotura hobetzea.
3. Serantes eta Montaña mendien hegaletako paisaia-interes bereziko eremua babestea ahalbidetzen duten jarduerak arautzea.
4. Seinaleztatutako bidezidorren sare bat sortzea, eta bizikleta-bidezidorrak mugatzea.



5. Meaztegiko Metropoli-Parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Metropoli-parkea meatze-jarduera ezaugarri duen eremu batean dago, Zugaztieta herriaren inguruan. Proposatutako mugaketa orientagarriak muga egiten du iparraldean eta mendebaldean Ortuella eta Abando-Zierbena hiri-hazkunderako perimetroarekin, hegoaldean Genekogorta - Meaztegi - Barbadungo K.E.06 korridore ekologikoarekin eta ekialdean Trapagango baso-lurzoruekin. Metropoli-parkea Abanto-Zierbena, Ortuella eta Trapagaran udalerrien barruan dago.

Gune hori berreskuratzeko hainbat ekimenen egin dira azken urteotan; izan ere, ezker aldeko aisialdirako gunerik handiena eta ia bakarra da. Gaur egun, Zugaztieta Meatzarien Herrixka Berreskuratu eta Babesteko Plan Berezia dago, Trapagarango Udalak bultzatua, Peñas Negras Interpretazio Zentroarekin eta Meaztegiko golf zelaiarekin batera. Era berean, Zugaztieta meatzarien herrixkan La Reineta funikularra dago, Trapagaranetik igarotzen dena.

2000. urtean Abanto-Zierbena, Ortuella eta Trapagarango Meatzaldeko Ingurumena Babestu eta Berreskuratzeko Plan Berezia onetsi zen. LPPak eremuaren muga handitu egin du, Las Calizas eremua barne hartuz, BFAko Ingurumen Sailak proposatu duen bezala.

Irizpideak, funtzio egituratzaileak eta antolamenduko helburuak:

Onetsitako plan berezia eguneratuko da eta Las Calizas eremua barne hartuko du. Eguneratze hori egiteko, Meatzaldeko, Abanto-Zierbenako, Ortuellako eta Trapagarango Meatzaldeko Ingurumena Babestu eta Berreskuratzeko Plan Berezian zehaztutakora jotzen da (Plan Berezia behin betiko onarpena 2000ko maiatzaren 10ean argitaratu zen BABen), bai eta LPP honek garatutako zehaztapenetara ere.



6. Pagasarriko Metropoli-Parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Ganekogorta menditik Pagasarri mendira doan gailur-lerroaren inguruan dago. Proposatutakomugaketa orientagarriak muga egiten du ekialdean AP-8 edukiera handiko errepidearekin eta Montefuerte metropoli-parkearekin, mendebaldean Enkarterriko Eremu Funtzionalaren mugarekin, hegoaldean Bilboko eta Arrigorriagako baso-erabilerako lurzoruekin eta Ganekogorta - Gorbeia - Aiarako K.E.05 korridore ekologikoarekin eta iparraldean Ganekogorta-Meaztegi-Barbaduneko K.E.06 korridore ekologikoarekin, sistema orokorretako lurzoruekin eta Bilboko hiri-hazkundeko perimetroarekin. Metropoli-parkea Bilbo, Alonsotegi, Arrankudiaga-Zollo, Ugao-Miraballes eta Arrigorriaga udalerrien barruan dago.

Eremuak izaera natural nabarmena du, eta Ganekogortako natura-intereseko eremua osatzen du. Eremu hori natura-gune garrantzitsuen katalogo irekian jasota dago, eta, gaur egun, baso-laborantzek eta zuhaitz autoktonoen eremu jakin batzuek hartzen dute. Hiriko biztanleek aisialdirako erabiltzen dutelako nabarmentzen da bereziki.

Parke horren Bilboko eremuak, Pagasarri inguruan, 2008ko ekainaren 18an behin betiko onartutako Plan Berezia du.

Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartuko du metropoli-parke horren plangintza bultzatzeko lana.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Parke honen natura- eta paisaia-ezaugarriak direla-eta, garrantzi handiko eremua da herritarren gozamenerako, eta eragin berezia du Bilboko herritarren artean.

Plan bereziak proposatzen dituen jarduerak eremuko natura-balioak babestu beharko dituzte eta baliabideen kudeaketa jasangarria antolatu beharko dute, ingurune fisikoaren gaineko esku-hartzeak eremuaren balioa nabarmentzeko, hainbat ikuspuntutatik: ingurunea, aisia, paisaia, nekazaritza eta basozaintza eta abar. Lehenetsuna izango du gizakiaren esku-hartzea dela-eta sentikorrak diren elementuak babesteak, bereziki, eremuan dauden bertako zuhaitz-masak babesteak eta zuhaitz gehiago eta bertako landaredia landatzea bultzatzeak. Gainera, kontaktua duen korridore ekologikoen konektibitate ekologikoa bermatu beharko da.

Egoera horren aurrean, oro har definitutako funtzioez gain, plan bereziak honako funtzio espezifiko hauek antolatu beharko ditu:

- o Natura: jarraitutasun ekologikoa sustatzea Ganekogorta-Meaztegi - Barbaduneko K.E.05 eta Ganekogorta - Gorbeia - Aiarako K.E.06 korridore ekologikoekin, bai eta Enkarterriko Eremu Funtzionalarekin ere.
- o Nekazaritza eta basozaintza: balio agroekologikoa duten lurzoruek babestea eta nekazaritza- eta baso-baliabideak modu iraunkorrean ustiatzeko ekintza berritzaileak abian jartzeko aukera.
- o Aisia: bidezidorren sarea identifikatzea.

Antolamendurako helburuak:

Idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Bilbo, Alonsotegi, Arrankudiaga-Zollo, Ugao-Miraballes eta Arrigorriagako udalerrien inguruan dauden eremu naturalen arteko konektibitate ekologikoa hobetzea. Zehazki, Ganekogorta – Gorbeia – Aiarako K.E.05 korridore ekologikoa Ganekogorta – Meaztegi – Barbadungo K.E.06 korridore ekologikoarekin eta Montefuerte metropoli-parkearekin ekologikoki konektatzen dela bermatzea.

2. Azpiegitura berdearen eta grisaren arteko gatatzeko-eremuak konpontzeari ekitea: Konektibitate ekologikoa bermatzea AP-68 errepidearen bidez, hiriburuaren euskal nukleo anitzeko sistemaren bidez.



konexioaren bidez (G.E.19 gatazka-eremua). Gatazka horri dagokionez, faunarentzako pasabide bat garatu beharko da.

3. Oinezkoentzako eta bizikletentzako konexioa erraztea Bilboko eta Arrigorriagako espazio libreekin, bereziki Arraiz, Montefuerte eta Mendikosolo eremuekin.

4. Eremurako bizikleta-sarbidea integratzea eremuaren ekialdeko mugan aurreikusitako interkonexio osagarriko metropoli-tartetik.

5. Seinaleztatutako bidezidorren sare bat sortzea eta bizikleta-bidezidorrak mugatzea.



7. Montefuerteko Metropoli-Parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Proposatutako metropoli-parkea Malmasin mendiaren inguruan dago. Mugaketa orientagarriak muga egiten du iparraldean Arrigorriagako, Bilboko, Etxebarriko eta Basauriko hiri-hazkundero perimetroarekin, hegoaldean AP-8 edukiera handiko errepidearekin eta Pagasarri metropoli-parkearekin, mendebaldean Bilboko hiri-hazkundero perimetroarekin eta ekialdean Basauriko baso-lurzoruekin eta bertako zuhaitzekin. Metropoli-parkea Basauri eta Arrigorriaga udalerrien barruan dago.

Mugatutako eremuak Euskal Kultura Ondareztat hartzen diren balio naturalak, paisajistikoak eta arkeologikoak ditu, eta horiek antolatuz, berreskuratzea, sendotzea eta hobetzea komeni da. Gainera, Ollargan-Montefuerte parkea ere hartzen du, Bilbo, Basauri eta Arrigorriagako biztanleek aisialdirako erabiltzen dutena.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Metropoli-parkearen garapenaren bidez, berdeguneak eta aisialdirako hornidurak (begiratokiak, pasealekuak, merenderoak eta abar.) modu ordenatuan integratu nahi dira. Plan bereziak ondare, ingurumen eta ekologia alderdietan eremuaren balioa handitzea sustatu beharko du, aisialdiko jarduerekin bateragarri eginez, erabilera eta jarduera egokiak arautuz.

Egoera horren aurrean, oro har definitutako funtzioez gain, plan bereziak honako hauek hartu beharko ditu kontuan:

- o Kultura: inguruan dauden ondare- eta kultura-elementuen balioa nabarmentzea, bereziki, Malmasingo tontorreko kastroarena eta meatze-hondakinena.
- o Aisia: baimendutako eta sustatutako aisialdiko jarduerak antolatzea, bai eta dauden beste jarduera mota batzuk ere. Aisialdiko eta paisaiako ibilbideak antolatzea.
- o Ekipamenduak: dauden kirol-jarduerak antolatzea.

Antolamendurako helburuak:

Idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Bilboko, Arrigorriagako eta Basauriko udalerrien inguruan dauden eremu naturalen arteko lotura ekologikoa hobetzea, eta Pagasarriko metropoli-parkearekin lotura ekologikoa bermatzea AP-68ko gatazka-eremuaren bidez (G.E.19).
2. Eremurako bizikleta-sarbidea integratzea eremuaren iparraldeko muga aurreikusitako arteria-sarearen bizikleta-ibilbidetik eta eremuaren mendebaldeko muga aurreikusitako interkonexio osagarriko metropoli-tartetik.
3. Seinaleztatutako bidezidorren sare bat sortzea, eta bizikleta-bidezidorrak mugatzea.
4. Eremuko ondare- eta kultura-elementuei balioa ematea eta horiek antolatzea, herritarrek interpretatu eta goza ditzaten.
5. Illunbeko kirol-instalazioak hobetzea eta zabaltzea, herritarrek goza dezaten.



8. Galindoko ibai-parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Metropoli-parkea Galindo ibaiaren ibilguaren inguruan dago, Errekaxo urtegiaren inguruan. Proposatutako mugaketa orientagarriak muga egiten du iparraldean Barakaldoko hirigunearekin, hegoaldean Ganekogorta – Meaztegi – Barbadungo K.E.06 korridore ekologikoarekin eta ekialdean eta mendebaldean Barakaldoko nekazaritza-lurzoruekin, baso-erabilerako lurzoruekin eta bertako basoekin. Ibai-parkea Barakaldo udalerriaren barruan dago.

Mugaketaren barruan Gorostiza urtegia dago (hezegunetzat hartuta dago). Parkea, bere kokapena dela eta, Barakaldoko hirigunearen eta natura-intereseko gunen horien arteko lotura da.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Ibai-Parke horren garapenaren bidez, eremu hori antolatu nahi da, Ganekogorta-Meaztegi-Barbadungo K.E.06 korridore ekologikoaren eta Barakaldoko hirigunearen arteko trantsizio-espazio gisa.

Garatzen diren jarduketek natura-balioen babesa eta baliabideen ustiapen bateragarria antolatu beharko dituzte, ahal den neurrian. Lehentasunez, zuhaitz autoktonoen masa handiak antolatuko dira, eta lotura ekologikoa bilatzen duten landaketa berriak bultzatuko dira, batez ere Galindo ibaiaren ertzetan, bai landa-eremuetan, bai hiri-eremuetan.

Halaber, oinezko eta bizikletentzako ibilbideen jarraipena bilatuko da ibilguaren inguruan eta ibilguan zehar, natura-balioak babestearekin bateragarriak diren aisialdiko jarduerak sustatze aldera.

Parkearen antolamenduan arreta berezia jarriko da urtegiaren inguruan, interes eta potentzial handiko gunea baita. Horretarako, eremuko azpiegitura linealen ibilbideak eta aisialdirako eremuak babesten saiatuko da, bai maila fisikoan, bai paisaiari dagokionez.

Egoera horren aurrean, funtzio orokorrez gain, plan bereziak honako hauek hartuko ditu kontuan lehentasunez:

- o Aisia: mendi-ibiliak egiteko eremuak jartzea, bai eta jarduera honekin erlazioa duten atsedenerako eta paisaia ikusteko jarduerak egin ahal izateko eremuak ere. Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide jarraitua egitea Galindo ibaiaren ibilguaren inguruan. Bestetik, urtegiko uretako jarduerak antolatzea.

Antolamendurako helburuak:

Idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Ingurunean dauden eremu naturalen arteko lotura ekologikoa hobetzea, Ganekogorta-Meaztegi-Barbadungo korridore ekologikoarekin lotura ekologikoa bermatuz.
2. Hiri-hazkundeko perimetroarekiko muga Errekaxo erdigunearekin eta Barakaldoko hirigunearekin integratzea eta antolatzea, hiri-azpiegitura berdearekin jarraitzea bultzatuz. Oinezko eta bizikletentzako bidea egitea Galindo ibaiaren ibilguaren inguruan eta ibilgu osoan, oinezkoen eta bizikleten bide jarraitu baten bidez.
3. Uretako eta urtegiaren inguruko jarduerak antolatzea.
4. Uraren Euskal Agentziarekin (URA) koordinatzea uholde-arriskua kudeatzeko garatu beharreko neurriak.



9. Kadaguako ibai-parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Ibai-parkea Kadagua ibaiaren ibilguaren inguruan dago, Alonsotegin. Proposatutako mugaketa orientagarriak muga egiten du iparraldean Ganekogorta - Meaztegi - Barbadungo K.E.06 korridore ekologikoarekin, hegoaldean Alonsotegirekin eta BI-636 errepidearekin, ekialdean Arbuioarekin eta mendebaldean Enkarterriko Eremu Funtzionalarekin. Ibai-parkea Alonsotegi eta Barakaldo udalerrien barruan dago.

Kokapena dela eta, ingurune horrek zeharka zeharkatzen du Ganekogorta – Meaztegi – Barbadungo K.E.06 korridore ekologikoa, azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisaren arteko G.E.16 gatazka-eremuarekin (BI-636, ADIF zabalera metrikoko linea eta hirigunea) paraleloan. Posizioari esker, elementu estrategikoa da korridore ekologikoaren beraren jarraitutasun ekologikorako proposamenak inplementatzeko.

Kadagua ibaiaren ibilguarekin paraleloan ADIF linea dago (zabalera metrikoa), ibai-parkerako mugatutako eremua luzetara bitan banatzen duena. Linearen alde baten eta bestearen arteko lotura plan bereziaren antolamenduan jaso beharko da.

Paisaiaren katalogoak Kadaguako haranaren hondoko Paisaiaren Interes Bereziko Eremua definitu du eremu horretarako.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Ibai-parkearen garapenaren bidez, eremu hori antolatu nahi da, bi helbururekin: Naturari lotutako aisialdirako beste aukera bat eskaintzea, Ganekogorta – Meaztegi – Barbadungo korridore ekologikoa dagoen gailur-lerrera iristeko, eta korridore horren jarraitutasun ekologikoa hobetzeko ekintzak proposatzea. Era berean, Kadagua ibaiaren inguruetan oinezkoen eta bizikleten jarraitutasuna bultzatu nahi da, Bilboko itsasadarrerraino ibaian behera egin dezakeen hiri-azpiegitura berdearekin lotuta, bai eta Kadaguan zehar Enkarterriko eremu funtzionalen Sodupeko nukleoaren eta ibaian gorako galtzadaren artean aurreikusitako ibai-parkearekiko lotura ere.

Lehentasuna izango du baliabideen ustiapena antolatzeak, natura-balioak arriskuan jarri gabe, bereziki bertako zuhaitz-masa garrantzitsuak arriskuan jarri gabe.

Eginkizun orokorreaz gain, idatziko den plan bereziak honako hauek izango ditu kontuan lehentasunez:

- o Nekazaritza eta basozaintza: balio agroekologikoa duten lurzoruak babestea eta nekazaritza-baliabideak modu iraunkorrean ustiatzeko ekintzak abian jartzeko aukera.
- o Paisaia: Kadaguako haranaren hondoko PIBEren antolamendua.
- o Aisia: Kadagua ibaiaren ibilguaren inguruan oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide jarraitua egitea, eta aisialdirako gune bat antolatzea, korridore ekologikoaren lerrera iristeko ibilbideetara sartzeko.

Antolamendurako helburuak:

Idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Ingurunean dauden eremu naturalen arteko lotura ekologikoa hobetzea, Ganekogorta – Meaztegi – Barbadungo K.E.06 korridore ekologikoaren konektibitate ekologikoa bermatuz Alonsotegiko nukleoaren inguruan. Bereziki, BI-636 errepidearen bidez (sare egituratzailearen eta ADIFeko trenbide-azpiegituraren (zabalera metrikoa) bidez) lotura ekologikoa bermatzea. Horretarako, G.E.16 gatazka-eremua konpontzeari ekingo zaio, faunarentzako pasabide bat garatuz, eta landareztatze eta



zuhaitzak landatzeko neurriak garatuz, ahal dela zuhaitz autoktonoekin, Kadagua ibaiaren ertzetan eta inguruko hiriguneetan.

2. Uraren Euskal Agentziarekin (URA) koordinatzea uholde-arriskua kudeatzeko garatu beharreko neurriak.

3. Hiri-azpiegitura berdearekin jarraitzearen alde egitea. Oinezko eta bizikletentzako bidea egitea Kadagua ibaiaren ibilguaren inguruan eta ibilgu osoan, oinezkoen eta bizikleten bide jarraitu baten bidez.

4. Aparkalekuak dituen ibilgailuen sarbidea antolatzea eta arautzea. Oinezkoen eta, hala badagokio, bizikleten zirkulazioa sustatzea.

5. Kadagua ibaiaren ibilbideetara eta korridore ekologikoaren mendilerroko bidezidorretara sartzeko aparkalekuari lotutako aisialdirako eremu bat antolatzea.

6. Plan bereziaren garapena Enkarterriko (ibaian gora) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren aurreikuspenekin koordinatzea. Horretarako, Plan Berezia idazten den unean ibaian gorako ibai-parkearen gauzatzearen aurrerapen-egoera aztertuko da, bai eta Sodupeko guneraino oinezkoen eta bizikleten jarraitutasuna bermatzeko aukera ere.



10. Nerbioi Behereko ibai-parkea

Kokapena, mugaketa orientagarria eta deskribapena:

Proposatutako metropoli-parkeak Arrankudiaga – Ugao – Miraballes – Arrigorriaga – Basauri hiri-eremuak hartzen ditu, Nerbioi ibaiaren inguruan, bertako nekazaritza-eta baso-lurzoruekin lotuta. Halaber, AP-68 eta BI-625 errepideekiko paraleloa da ibilbidearen zati handi batean. Muga egiten du ekialdean Basauriko hiri-hazkundeko perimetroarekin, hegoaldean Ganekogorta - Gorbeia - Aiarako K.E.05 korridore ekologikoarekin, iparraldean eta hegoaldean nekazaritza-lurzoruekin, baso-erabilerako lurzoruekin eta bertako basoekin eta ekialdean Urdaibai - Ganekogorta korridore ekologikoarekin. Ibai-parkea Arrankudiaga, Ugao-Miraballes, Arrigorriaga, Zaratamo eta Basauri udalerrien barruan dago.

Antolamendurako irizpide eta funtzio egituratzaileak:

Ibai-parke horren garapenaren bidez, elementu natural bat antolatu nahi da, Arrankudiaga-Zollo, Ugao-Miraballes, Arrigorriaga eta Basauriko hiriguneak elkarren artean lotuko dituen, eta aldameneko espazio natural txikiekin.

Plan bereziak jarraitutasun ekologikoko irtenbideak proposatu beharko ditu Arrankudiaga-Zollo eta Ugao – Miraballes nukleoen inguruan, Ganekogorta – Gorbeia – Aiarako K.E.05 korridore ekologikoa eta Urdaibai – Ganekogortakoa lotzeko. Batez ere, zuhaitzi eta landaredi autoktonoa babestu beharko da, eta Nerbioi ibaian zehar eta inguruetan landatzea sustatu.

Era berean, hiriguneak elkarrekin lotu beharko ditu azpiegitura berdearen (urdira) bidez eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideen bidez Nerbioi ibaiaren ibilguan zehar, eta aisialdiko jarduerak ahalbidetzen dituzten funtzioak txertatu beharko ditu, natura-balioak babestu eta balioesteko modu bateragarrian.

Eginkizun orokorrez gain, idatziko den plan bereziak honako hauek izango ditu kontuan lehentasunez:

- o Nekazaritza eta basozaintza: balio agroekologikoa duten lurzoruak babestea eta nekazaritza-baliabideak modu iraunkorrean ustiatzeko ekintzak abian jartzeko aukera.
- o Aisia: mendi-ibiliak egitea, bai eta jarduera honekin erlazioa duten atsedenerako eta paisaia ikusteko jarduerak egin ahal izateko eremuak ere. Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide jarraitua egitea Nerbioi ibaiaren ibilguaren inguruan.

Antolamendurako helburuak:

Idatziko den plan bereziak honako helburu espezifiko hauek izango ditu kontuan eremua antolatzeko:

1. Ingurunean dauden eremu naturalen arteko lotura ekologikoa hobetzea. Zehazki:

- o ekialdean Urdaibai-Gabekogorta K.E.03 korridore ekologikoarekiko lotura, Ugao-Miraballes eta Arrankudiaga-Zolloko G.E.09 gatazka-eremuaren bidez. Konektibitate ekologikoa bermatzea AP-68 errepidearen bidez, hiriburuen euskal nukleo anitzeko sistemaren bide-konexioaren eta RENFE trenbide-azpiegituraren bidez. Landareztatze eta zuhaitzak landatzeko neurriak garatzea, ahal dela zuhaitz autoktonoekin, bai bizitegi-guneetan, bai industria-guneetan.
- o hegoaldean Ganekogorta - Gorbeia - Aiarako K.E.05 korridore ekologikoarekin G.E.14 gatazka-gunearekin (Ugao-Miraballes) eta G.E.15 gunearekin (Arrankudiaga-Zollo). Landareztatze eta zuhaitzak landatzeko neurriak garatzea, ahal dela zuhaitz autoktonoekin, Nerbioi ibaiaren ertzean, bai ondoko hiriguneetan.

2 Uraren Euskal Agentziarekin (URA) koordinatzea uholde-arriskua kudeatzeko garatu beharreko neurriak.



3. Arrankudiaga-Zollo, Ugao-Miraballes, Arrigorriaga eta Basauriko nukleoen arabera integratu eta antolatzea, berdearekin jarraitzea bultzatuz. Oinezko eta bizikletentzako bidea egitea Nerbioi ibaiaren ibilguaren inguruan eta ibilgu osoan, oinezkoen eta bizikleten bide jarraitu baten bidez.

4. Eremuaren antolamendua koordinatzea, aipatutako eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak Aiarako eremu funtzionalean mugatutako hobetu eta/edo berreskuratu beharreko eremua integratuz.